

ERABAKIA, 2017ko urriaren 6koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, IDAZKARITZA NAGUSIA Ikastetxe edo Zerbitzurako: F 1224 Administrazioaren Berrikuntza eta Modernizazioaren Zerbitzu burua lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2017ko uztailaren 14ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.-Gerentearen erabakiaren bidez, 2017ko irailaren 18koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).
- Akordioa, 2014ko uztailaren 1ekoa, AZP funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZP funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko buruzkoa Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2014ko abuztuaren 27ko EHAA).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena.- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengoa: Deialdi honetako lanpostua zerbitzu betekizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako l. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2017ko urriaren 9ko ondorio dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2017ko urriaren 6an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUko GERENTEA



Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA

2017/07/14

Esleipenduna: ALCIRA MACIAS REDONDO
Lanpostuaren Izena: Administrazioaren Berrikuntza eta Modernizazioaren
Zerbitzu burua
Lanaldia: Arautua
Eref.: F 1224
Zenbatgarrena: 1
Maila: 26
Taldea: A
Eskala: Gestio Teknikaria
H.E.: 3; 2014ko urtarrilaren 31
Langunea: IDAZKARITZA NAGUSIA
Campus: BIZKAIA
BE:
Ondorio data: 2017ko urriaren 9a

